SECCIÓN I

ADMINISTRACIÓN FORAL DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA

Diputación Foral de Bizkaia

## Departamento de Hacienda y Finanzas

# DECRETO FORAL 161/2022, de 27 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifican los porcentajes de retención a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicables a los rendimientos del trabajo en 2023.

Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

**Bizkaiko Foru Aldundiaren 161/2022 FORU DEKRETUA, abenduaren 27koa, 2023ko lanaren etekinei Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren ordainketarako aplikatuko zaizkien atxikipen-ehunekoak aldatzen dituena.**

Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2022ko Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 30eko 8/2021 Foru Arauaren bidez, 2022ko zergaldira luzatzen da COVID-19arekin lotutako luzapen-neurriei eta beste premiazko neurri batzuei buruzko abenduaren 1eko 11/2020 Foru Dekretu Arauemailearen 9. artikuluaren Bi apartatuan xedatutakoa. Izan ere, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan zenbait doikuntza egin ziren aitortzeko betebeharrari dagokionez, eta, hala, 12.000 eurotik 14.000 eurora igotzen da lanaren etekin gordinak lortzeko ezarritako muga, eta muga horren azpitik ez dago aitortzeko betebeharrik. Era berean, zergadunek ordaintzaile batetik baino gehiagotik datozen 14.000 eta 20.000 euro bitarteko lanaren etekin gordinak jasotzeagatik aitortzeko betebeharra duten kasuetan, betebehar hori betetzetik salbuetsita egongo dira honako kasu hauek: bigarren ordaintzailetik eta gainerakoetatik jasotako diru kopuruen (zenbatekoaren arabera ordenatuta) guztizko batura urtean 2.000 eurotik gorakoa ez denean.

Halaber, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan likidazio-oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifa % 1,5 deflaktatu zen, eta

**DECRETO FORAL 161/2022, de 27 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia por el que se modifican los porcentajes de retención a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicables a los rendimientos del trabajo en 2023.**

Mediante la Norma Foral 8/2021, de 30 de diciembre, de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2022, se prorrogó para el periodo impositivo 2022, lo dispuesto en el apartado Dos del artículo 9 del Decreto Foral Normativo 11/2020, de 1 de diciembre, de medidas de prórroga y otras medidas urgentes relacionadas con la COVID-19, que introdujo determinados ajustes en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas en relación con la obligación de declarar, de manera que se elevó de 12.000 a 14.000 euros el límite establecido para la obtención de rendimientos brutos de trabajo por debajo del cual no existe obligación de declarar y asimismo, en los casos en que los y las contribuyentes tuvieran obligación de declarar por percibir rendimientos brutos de trabajo entre 14.000 y 20.000 euros procedentes de más de un pagador o pagadora, se estableció la exoneración del cumplimiento de dicha obligación para aquellos supuestos en los que la suma de las cantidades percibidas del segundo y restantes pagadores, por orden de cuantía, no superara en su conjunto la cantidad de 2.000 euros anuales.

Asimismo, se deflactó un 1,5 por 100 la tarifa aplicable a la base liquidable general en el Impuesto sobre la Renta de las Personas

cve: BOB-2022a248-(I-1208)

ehuneko berean igo ziren baterako tributazioagatiko murrizketa, kuotaren gutxitzea eta kenkari pertsonalak.

Neurri horiekin bat etorriz, pertsonen errentaren gaineko zergaren ordainketarako atxikipenen taula bat onartu zen 2022ko ekitaldirako, Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 28ko 176/2021 Foru Dekretuaren bidez. Foru-dekretu horrek 2022ko lanaren etekinei pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren ordainketarako aplikatuko zaizkien atxikipen-ehunekoak aldatzen ditu.

Ondoren, erregaien prezioen eta elektrizitatearen handizkako merkatuaren gorakada etorri zen, zeina Ukrainako gerrak larriagotu baitu, sekula ikusi gabeko espiral inflazionista bat eragiten ari baita. Gainera, azpiko inflazioaren urteko tasa % 5,5ekoa zen 2022ko ekainean. Bada, hori guztia kontuan hartuta, abuztuaren 24ko 5/2022 Foru Dekretu Arauemailearen bidez (haren bidez premiazko zerga-neurriak hartzen dira inflazioaren bilakaerari aurre egiteko), berriro deflaktatu zen % 4 2022ko ekitaldiari dagokion likidazio-oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifa, eta, era berean, ehuneko berean handitu ziren baterako tributazioagatiko murrizketa, kuotaren gutxitzea eta kenkari pertsonalak. Gainera, aldaketa horiek langileen fiskalitate pertsonalari berehala helarazteko, lan pertsonalaren etekinei 2022ko irailaren 1etik aurrera aplikatu beharreko atxikipenen taula egokitu da.

Físicas, incrementando a su vez en idéntico porcentaje la reducción por tributación conjunta, la minoración de cuota y las deducciones personales.

En consonancia con estas medidas se aprobó una tabla de retenciones a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas para el ejercicio 2022, por medio del Decreto Foral 176/2021, de 28 de diciembre, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se modifican los porcentajes de retención a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicables a los rendimientos del trabajo en 2022.

Con posterioridad, ante la escalada de los precios de los carburantes y del mercado mayorista de electricidad, agravada por la guerra de Ucrania, que está provocando una espiral inflacionista sin precedentes, y teniendo en cuenta que la tasa anual de la inflación subyacente era del 5,5 por 100 a junio de 2022, mediante el Decreto Foral Normativo 5/2022, de 24 de agosto, por el que se adoptan medidas tributarias urgentes ante la evolución de la inflación, se deflactó nuevamente un 4 por 100 la tarifa aplicable a la base liquidable general correspondiente al ejercicio 2022, incrementando a su vez en idéntico porcentaje la reducción por tributación conjunta, la minoración de cuota y las deducciones personales. Además, a fin de trasladar de manera inmediata estas modificaciones a la fiscalidad personal de las y los trabajadores se procedió a adecuar la tabla de retenciones aplicable a los rendimientos de trabajo personal a partir del 1 de septiembre de 2022.



cve: BOB-2022a248-(I-1208)

Egoera inflazionistak bere horretan jarraitzen duenez, Bizkaiko Lurralde Historikoaren 2023ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Arauaren bidez, 2023rako eutsi egiten zaie pertsona fisikoen errentaren gaineko zergan aitorpena egiteko betebeharra zehazteko aurrez aipatutako mugei, eta berriro deflaktatzen da % 2 2023ko ekitaldiari dagokion likidazio-oinarri orokorrari aplikatu beharreko tarifa, eta, era berean, ehuneko berean handitzen dira baterako tributazioagatiko murrizketa, kuotaren gutxitzea eta kenkari pertsonalak.

Ante la persistencia de la situación inflacionista, mediante la Norma Foral de Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Bizkaia para el año 2023, se mantienen para dicho año 2023 los límites mencionados con anterioridad para determinar la obligación de declarar en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas y se procede de nuevo a deflactar un 2 por 100, la tarifa aplicable a la base liquidable general correspondiente a dicho ejercicio 2023, incrementando a su vez en idéntico porcentaje la reducción por tributación conjunta, la minoración de cuota y las deducciones personales.

Azaldutako guztiagatik, Foru Dekretu honen xedea da pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren konturako atxikipenen taula berria onestea, lanaren etekinei aplikatzekoa 2023ko zerga-ekitaldia hastear dagoen honetan.

Por lo expuesto, ante el inminente inicio del ejercicio fiscal 2023, el presente Decreto Foral tiene por objeto aprobar la nueva tabla de retenciones a cuenta del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas aplicable a los rendimientos de trabajo.

Adierazi behar da foru dekretu honen izapidetzea foru arau honetan xedatutakoaren arabera egin dela: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2018 Foru Araua, ekainaren 20koa.

Se debe señalar que la tramitación de este Decreto Foral se ha llevado a cabo de acuerdo con lo dispuesto en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

Gainera, Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuak jasotzen dituen izapide guztiak bete dira.

Asimismo, se han observado los trámites previstos en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio, por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general en la Diputación Foral de Bizkaia.

Azaldutakoa dela bide, Ogasun eta Finantza Saileko foru diputatuak proposatuta eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak eztabaidatu eta onetsi ondoren, honako hau

Por lo expuesto, a propuesta del diputado foral de Hacienda y Finanzas, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación



cve: BOB-2022a248-(I-1208)

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra. *Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Araudia aldatzea.*

Aldatu egingo dira apirilaren 8ko 47/2014 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko Araudiko 88. artikuluko 1. eta 4. zenbakiak, eta honela geratuko dira:

"1. Atxikipen-portzentajeen taula orokorra.

DISPONGO:

Artículo Único. *Modificación del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.*

Se modifican los apartados 1 y 4 del artículo 88 del Reglamento del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, aprobado por el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 47/2014, de 8 de abril, quedando redactados de la siguiente forma:

"1. Tabla general de porcentajes de retención.

| **Urteko etekina<br>Importe Rendimiento Anual (€)** | | **Ondorengoen kopurua<br>Número de descendientes** | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **Honetatik<br>Desde** | **Honetara<br>Hasta** | **0** | **1** | **2** | **3** | **4** | **5** | **Gehiago<br>Más** |
| **0,00** | **14.000,00** | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **14.000,01** | **15.220,00** | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **15.220,01** | **15.980,00** | 6 | 4 | 1 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **15.980,01** | **17.090,00** | 7 | 5 | 3 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **17.090,01** | **18.380,00** | 8 | 6 | 4 | 0 | 0 | 0 | 0 |
| **18.380,01** | **19.730,00** | 9 | 7 | 5 | 2 | 0 | 0 | 0 |
| **19.730,01** | **21.260,00** | 10 | 8 | 7 | 3 | 0 | 0 | 0 |
| **21.260,01** | **23.020,00** | 11 | 10 | 8 | 5 | 1 | 0 | 0 |
| **23.020,01** | **24.340,00** | 12 | 11 | 9 | 6 | 3 | 0 | 0 |
| **24.340,01** | **26.450,00** | 13 | 12 | 10 | 7 | 4 | 0 | 0 |
| **26.450,01** | **28.730,00** | 14 | 13 | 11 | 9 | 6 | 2 | 0 |
| **28.730,01** | **31.440,00** | 15 | 14 | 13 | 10 | 8 | 4 | 0 |
| **31.440,01** | **34.700,00** | 16 | 15 | 14 | 12 | 9 | 6 | 0 |
| **34.700,01** | **39.200,00** | 17 | 16 | 15 | 13 | 11 | 8 | 0 |
| **39.200,01** | **42.730,00** | 18 | 17 | 16 | 15 | 13 | 10 | 2 |
| **42.730,01** | **46.060,00** | 19 | 18 | 17 | 16 | 14 | 12 | 5 |
| **46.060,01** | **49.950,00** | 20 | 19 | 18 | 17 | 15 | 13 | 7 |



cve: BOB-2022a248-(I-1208)

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| **49.950,01** | **54.440,00** | 21 | 20 | 20 | 18 | 17 | 15 | 9 |
| **54.440,01** | **58.910,00** | 22 | 21 | 21 | 19 | 18 | 16 | 11 |
| **58.910,01** | **62.530,00** | 23 | 22 | 22 | 21 | 19 | 18 | 12 |
| **62.530,01** | **66.690,00** | 24 | 23 | 23 | 22 | 21 | 19 | 14 |
| **66.690,01** | **71.430,00** | 25 | 25 | 24 | 23 | 22 | 20 | 16 |
| **71.430,01** | **76.990,00** | 26 | 26 | 25 | 24 | 23 | 22 | 17 |
| **76.990,01** | **82.800,00** | 27 | 27 | 26 | 25 | 24 | 23 | 19 |
| **82.800,01** | **87.810,00** | 28 | 28 | 27 | 26 | 25 | 24 | 20 |
| **87.810,01** | **93.650,00** | 29 | 29 | 28 | 27 | 27 | 25 | 22 |
| **93.650,01** | **100.330,00** | 30 | 30 | 29 | 29 | 28 | 27 | 23 |
| **100.330,01** | **108.030,00** | 31 | 31 | 30 | 30 | 29 | 28 | 25 |
| **108.030,01** | **116.500,00** | 32 | 32 | 31 | 31 | 30 | 29 | 26 |
| **116.500,01** | **125.820,00** | 33 | 33 | 32 | 32 | 31 | 30 | 28 |
| **125.820,01** | **137.200,00** | 34 | 34 | 33 | 33 | 32 | 32 | 29 |
| **137.200,01** | **150.220,00** | 35 | 35 | 34 | 34 | 33 | 33 | 31 |
| **150.220,01** | **164.530,00** | 36 | 36 | 36 | 35 | 35 | 34 | 32 |
| **164.530,01** | **181.840,00** | 37 | 37 | 37 | 36 | 36 | 35 | 33 |
| **181.840,01** | **203.240,00** | 38 | 38 | 38 | 37 | 37 | 36 | 35 |
| **203.240,01** | **225.470,00** | 39 | 39 | 39 | 38 | 38 | 37 | 36 |
| **225.470,01** | **Hortik Aurrera en adelante** | 40 | 40 | 40 | 39 | 39 | 39 | 37 |

“4. Langile aktibo desgaituak.

Langile aktibo desgaituei artikulu honetako 1. zenbakian atxikipen-portzentajeen taula orokorra aplikatuko zaie. Dena dela, taula orokorra aplikatuz ateratzen den atxikipen-portzentajeari hurrengo eskalan ageri diren puntuak kenduko zaizkio, langilea honako egoera hauetako batean badago:

“4. Personas trabajadoras activas con discapacidad.

A las personas trabajadoras activas con discapacidad les será de aplicación la tabla general de porcentajes de retención a que se refiere el apartado 1 de este artículo. Este porcentaje de retención que resulte de la aplicación de la tabla general se minorará en los puntos que señala la siguiente escala, según que la referida persona trabajadora se encuentre en alguna de las siguientes situaciones:



cve: BOB-2022a248-(I-1208)

a) %33koa edo handiagoa eta %65ekoa baino txikiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.

a) Personas trabajadoras activas con un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100.

b) Desgaitasun-gradua %33koa edo handiagoa eta %65 baino txikiagoa izanik, mugitzeko gaitasuna murriztuta duten langile aktibo desgaituak. Langileok halakotzat joko dira, baldin eta desgaitasun-gradua aitortu, adierazi eta kalifikatzeko prozedurari buruzko abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuko III. eranskinean agertzen den baremoko A, B eta C letretan adierazitako egoeretako batean badaude, edo baremo horretako D, E, F, G edo H letretan 7 puntu edo gehiago lortzen badituzte.

b) Personas trabajadoras activas con un grado de discapacidad igual o superior al 33 por 100 e inferior al 65 por 100 que se encuentren en estado carencial de movilidad reducida, entendiéndose por tal los que se encuentren incluidos en alguna de las situaciones descritas en las letras A, B o C del baremo que figura como anexo 2 del Real Decreto 1.971/1999, de 23 de diciembre, de procedimiento para el reconocimiento, declaración y calificación del grado de discapacidad, o que obtengan 7 o más puntos en las letras D, E, F, G o H del citado baremo.

c) %65ekoa edo handiagoa den desgaitasun-gradua duten langile aktiboak.

c) Personas trabajadoras activas con un grado de discapacidad igual o superior al 65 por 100.

| Urteko etekina Importe Rendimiento Anual (€) | | Desgaitasun maila / Grado de discapacidad | |
|---|---|---|---|
| **Honetatik Desde** | **Honetara Hasta** | **4. a) atala Apartado 4. a)** | **4. b) eta 4.c) atalak Apartado 4. b) y Apartado 4.c)** |
| **0,01** | **24.340,00** | 9 | 12 |
| **24.340,01** | **31.440,00** | 7 | 12 |
| **31.440,01** | **46.060,00** | 6 | 10 |
| **46.060,01** | **54.440,00** | 5 | 10 |
| **54.440,01** | **76.990,00** | 4 | 8 |
| **76.990,01** | **116.500,00** | 3 | 6 |
| **116.500,01** | **181.840,00** | 2 | 5 |
| **181.840,01** | **hortik aurrera / en** | 1 | 3 |



cve: BOB-2022a248-(I-1208)

Azken xedapenetako lehenengoa. *Indarrean jartzea*.

Foru dekretu hau 2023ko urtarrilaren 1ean jarriko da indarrean.

Azken xedapenetako bigarrena. *Arauak emateko gaikuntza.*

Ogasun eta Finantzen foru diputatuari ahalmena eman zaio foru dekretu hau garatu eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak emateko.

Bilbon, 2023ko abenduaren 27an

Ahaldun Nagusia

Disposición final primera. *Entrada en vigor.*

El presente Decreto Foral entrará en vigor el día 1 de enero de 2023.

Disposición final segunda. *Habilitación.*

Se autoriza al diputado foral de Hacienda y Finanzas para dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo y aplicación del presente Decreto Foral.

En Bilbao, a 27 de diciembre de 2022

Ogasun eta Finantzen foru diputatua

El diputado foral de Hacienda y Finanzas

JOSÉ MARÍA IRUARRIZAGA ARTARAZ

EL Diputado General

UNAI REMENTERIA MAIZ



cve: BOB-2022a248-(I-1208)